

Ez dut maite gerra



ARITZ GALARRAGA

Ez da Franz Kafkaren hoztasun hura –“Alemaniak gerra deklaratu dio Errusiari. Arratsaldean igeri egitera joan naiz”–, baina Stefan Zweigek ere ez zuen espero I. Mundu Gerra etorriko zenik –“Egia da tarteka pentsatzen genuela gerran, baina tarteka heriotzan pentsatzen genuen modu oso bertsuan: gertagarria zen zerbait, baina aski urrunean”–; ez eta hil zutenean Sarajevon Franz Ferdinand ere –“aurpegieta ez zen emozio edo haserre berezirik atzematen, tronuaren oinordekoa ez baitzen sekula izan pertsonaia maitea”–. Ostende ondoko bainuetxe batean ohartu zen gerra bertan zegoela: “Bat-batean soldadu belgikarrak ikusten hasi ginen, ordura arte hondartza zapaldu gabeak”. Izan ere, arrisku momentuetan handiagoa bilakatzeko baita esperantza izaten jarraitzeko borondatea. “Oraindik ere, uda hitza ahoskatzen dudanean, gogora etortzen zaizkit automatikoki uztaileko egun distiratsu haiek”, utzi zuen idatzita *Atzoko mundua. Europar baten memoriak* izeneko liburuan.

Hannah Arendt irakurri duen honek, ordea, pentsatu nahi du III. Mundu Gerrarik ez dela etorriko, “gerra nazioarteko liskarretan antzina-antzinaz geroztik baliatu dugun arbitro gupidagabe behin betikoa ez baita inondik inora lehen bezain eraginkorra eta xarma ia osoa galdu du”. Motiboa: “Indarkeriazko tresnen garapen teknikoa halako une batera iritsi da egun, non ez baitago inolako helburu politikorik gaitasun suntsigarri horren araberakoa izan daitekeenik edo haren erabilera justifika dezakeenik gatazka armatu batean”. Hau da: “Batek irabaziz gero, biak akabo”. Pentsatu nahi dut III. Mundu Gerrarik ez dela etorriko, eta etorriko balitz, harrapatuko bagintu auskalo nongo hondartzetan, gerturik daukagu Boris Vianen *Desertorea*, IbonRGren ahotsean: “Jaun txit bihotzeko / Ez dut gerrarik gura / Ez naiz jaio mundura / Inoren hiltzeko / Ez zaitetz haserra / Baina jakin ezazu / Desertore noazu / Ez dut maite gerra”. ●



Presoak

Iratxe Sorzabal presoari 24 urteko espetxe zigorra ezarri dio Espainiako Auzitegi Nazionalak. Guardia Zibilak egindako torturen ondorioz bere burua inkulpatu zuela deklaratu zuen Sorzabalek, baina epaileek diote torturak ez daudela erabat frogatuta. Kezka adierazi du Europako abokatuen elkarte batek.

Langile borroka

Batu! aurkeztu dute Ezkerraldean, langileen antolakuntza bultzatzeko. “Klase kontzientzia bereko hainbat arlotako langilez eta langileentzat osatutako kolektibo” gisa aurkeztu du bere burua, eta auto-antolakuntzaren bidez, batasuna, elkartasuna eta klase borroka sustatu nahi du.

Euskaltzaindia

Miren Agur Meabe idazlea euskaltzain oso izendatu dute. Xabier Kintanaren hutsartea beteko du eta akademiak izendatutako 95. euskaltzain osoa izango da. Irakasle ikasketak eta Euskal Filologia ikasi zituen eta irakaskuntzan eta testu-liburugintzan aritu zen urte askoan. Gaur egun, idazlea da.